 kutxabank	<b>BESTE ZERBITZU BATZUK</b>	EPIGRAFEA <b>8</b>
	Egun honetatik indarrean: 2018.06.20	1. orria 4(e)tik

### 1. Merkataritzako txostenak

Zenbateko hauek finkatuko dira:

- 6,00 euro Emandako laburbildutako txosten bakoitzeko. Txosten hori izango da jardueraren, kaudimenaren, moraltasunaren eta betetzearen datu soilak dituena.
- 12,00 euro Txostena normala edo zabalagoa denean.

Horrez gain, eragina izango dute larrialdiko arrazoiak direla eta, telefono, telegrafo, informazio-agentzia edo erakundeko kudeatzaileen zerbitzu berezietara joz gero sortutako ezohiko gastuek.

Jabetza-Erregistroan hirugarrenen kontura egindako kontsultetan, sortutako sortzapean eta gastuak berreskuratzeaz gain, 20,00 euro jasoko dira egiaztatutako finka bakoitzeko eta 45,00 euro eskatutako Kargen Ziurtagiri bakoitzeko.

### 2. Askotariko banku-kudeaketak

Kontzeptu horretan jasoko dira (bezeroak hala eskatuta) erakunde publiko edo pribatuen aurrean egindako ohiko banku-kudeaketak, bankuarentzat aldez aurreko kontratu-obligazioetatik eratorri gabeak, eta zenbait kasutan bankuko langileen joan-etorriak eskatzen dituztenak, oro har, ahaldunenak. Adibide gisa, honako hauek aipatuko ditugu:


- . Gordailuak, fidantzak eta obren eta kredituen exekuzioko berme-abalak.
- . Endosuen berri hartzea.
- . Protestoa edo abala emandako efektuen gainean notarioek egindako ordainketa-errekerimenduak.
- . Dokumentuak sinatzeko joan-etorriak.  
 Bezeroak aldez aurretik eskatuta, erakundeak plaza horretan bulegorik ez duenean betiere, eta hori eragiketa formalizatu zenekoaren bestelakoa denean.  
 (Komisio hori ez da jasoko bidaia horrek eskriturak sinatzea xede duenean, kutxaren jardueraren eremuan, edo eragiketa hobetzeko beharrezkoa denean).

Egindako kudeaketa-lan bakoitzeko 100,00 euro jasoko dira, bai eragiketak sortzean, bai eragiketak balio gabetzean.

Hipoteka-maileguetan finkak baloratzeagatik:

Teknikariek edo lan hori egindako enpresak fakturatutako balorazio-kostuak eragina izango du, kasuan kasu.

Sinadura norberarena dela aitortzeagatik, bezeroak hala eskatuta, hirugarrenen aurrean aurkezteko eta efektuetarako, 6,00 euro jasoko dira.

	<b>BESTE ZERBITZU BATZUK</b>	EPIGRAFEA <b>8</b>
	Egun honetatik indarrean: 2018.06.20	2. orria 4(e)tik

### 3. Bezeroei zuzendutako askotariko informazioak

-Izaera orokorrarekin eta aldian behingo izaerarekin: (laburpenak, zordunketak, ordainketak eta abar).	Doakoa
- Bezeroak hala eskatuta: Askotariko ziurtagiriak, agiri justifikatzaileak, bikoiztuak eta bestelako dokumentuen bikoiztuak, txekeak eta efektuak salbu, gertakarien ebazpenak eragiten duenean eteteko prozesuan. Ez da komisio hori jasoko "zero saldoko ziurtagiriak" egiteagatik.	20,00 euro eskatutako agiri bakoitzeko
-Bezeroak hala eskatuta: "Finantza Informazioa – ETE" dokumentu-txostena igortzea.	125,00 euro
- Auditoretza enpresentzako ziurtagiriak: Honako bloke hauen arabera, gure bezeroaren aginduan espresuki eskatutako informazio-bloke bakoitzeko: a) Kontu-korronteak eta eperako gordailuak b) Kredituak, maileguak eta abalak c) Efektu-zorroa d) Balore-eragiketak e) Atzerriko eragiketak f) Beste batzuk	20,00 euro gutxienez 50 euro

### 4. Heriotza-espeditenteak izapidetzea.

Kudeaketa hori bezeroak eskatutakoa denean, espeditenteko 80 euroko komisioa jasoko da.


### 5. Hipotekak ezerezteko eskriturak izapidetzea.

Kudeaketa hori bezeroak espresuki eskatutakoa denean, 120 euroko komisioa jasoko da dokumentazioa prestatzeko zerbitzuagatik, erakundea izan dadin notario emailearen aurrean kudeaketa- eta izapidetze-lanak egingo dituen.

Bezeroari bankuaren aurrean duen kontratu-obligazioaren dokumentu justifikatzailea emateagatik eta dagokion eskritura sinatzeko joan-etorriengatik ez da komisiorik kobratuko, bezeroa denean bere kabuz baliogabetze hori emateko beharrezko izapideak egiten dituen.

### 6. Loteria eta kinielak kobratzea.

<b>Kobrantsagatikoko komisioa</b>	
Efektuaren nominalaren gaineko %	Gutxienekoa
6	12,00

 kutxabank	<b>BESTE ZERBITZU BATZUK</b>	EPIGRAFEA <b>8</b>
	Egun honetatik indarrean: 2018.06.20	3. orria 4(e)tik

**7. Gaueko diruontzia**

Kontratatzeko unean 30,00 euroko komisioa jasoko da. Erabilera bakoitzeko 1,50 euroko komisioa jasoko da.

**8. Txanpon-zerbitzuaren tarifa**

Bezeroek eskatuta, zatikizko txanponak eskuratzeko zerbitzuaren komisioa hau izango da: 0,4€ bilkaria.

**9. Kontuan sartzeko billeteak eta/edo txanponak kontatzea.**

Bezeroek hala eskatuta, billeteak eta/edo txanponak zenbatzeko, paketatzeko eta/edo aldatzeko zerbitzuagatik 6 €-ko zenbatekoa kobratuko da 500 unitate edo zati bakoitzeko; salbuetsita egongo dira lehen 50 unitateak.

**10. Bulegoetan eskudirua entregatzea**


Bezeroak hala eskatuta, bulegoetan egindako eskudiruaren entregegatik, baldin eta haien zenbateko handia (10.000 €-tik aurrera) dela eta segurtasuneko garraioarekin lotutako aparteko kostuak sortzen badira eta baldin eta bezeroak ez badu 48 ordu baino lehenagoko aurreabisua egiten, eskaera bakoitzeko 30 € gehi funtsen garraio blindatuetan espezializatutako enpresak egindako fakturazioa kobratuko da.

**11. Eskudirua Kutxabanken establezimenduetatik kanpo jasotzea eta/edo entregatzea**

Kutxabanken establezimenduetatik kanpo eskudirua jasotzeagatik eta/edo entregatzeagatik, jasotako/entregatutako zenbatekoaren % 0,25 kobratuko da 30 €-ko gutxienekoarekin. Horri joan-etorriko gastuak edo, dagokionean, funtsen garraio blindatuan espezializatutako enpresak egindako fakturazioa gehitu beharko zaio.

Gainera, txanponak eta/edo billeteak kontatzeko zerbitzua ere eskatuko balitz, dagokion tarifa ere aplikatuko litzateke.

**1.oharra** Zerbitzu bakoitzean, eragiketako aplikatu beharreko komisioak dagokion atalean adierazitakoak izango dira, indarrean dagoen araudiaren arabera BEZa edo dagokion zerga gehituta.

 kutxabank	<b>BESTE ZERBITZU BATZUK</b>	EPIGRAFEA 8
	Egun honetatik indarrean: 2018.06.20	4. orria 4(e)tik